

noaua

Hezkuntzako parte hartze
prozesua, azken txanpan

10
la 100 langabetu
gehiago Usurbilen,
urtebeteko epean

Igande honetan, Tipi-Tapa
pintxo ibilbidea osatzeko
aukera berri bat

“Santa Ageda bezpera degu

Euskal Herriko eguna”



Psikomotrizitatea taldean

Psikomotrizitatea familiarian

Haur masaje tailerra

Kale Nagusia 27, Lasarte-Oria
Tel. 617 294 582
www.saltogela.net

USURBIL MUSIKAZ BLAI

INAUTERIAK 2013
OTSAILAK 9, LARUNBATA

12.30: Zumartxan txaranga • 14.00: Bazkaria Olarrondon
(txartelak salgai 18 eurotan Noaualn, Irratin eta Txiribogan)

- 17.00: Erraldoien kalejira dultzaineroekin
- 19.00 Burrunbazale txarangarekin kalejira

noaualn

Laguntzailea:
Usurbilgo Gaztetxea

Albistearen iruditan

Ertzaintzaren bisita jaso zuten Ugarten

Aurreko ostiralean, Ertzaintzaren bi auto bertaratu ziren Ugarte baserrira eta barruan ziren gazteak identifikatu zituzten. Etxe-jabeak salaketa jartzeko duenean, ohiko prozedura izaten da hau: bertan direnak identifikatzearena. Duela aste batzuk orriotan azaldu genuen bezala, gazte batzuk Ugarte baserrira okupatu zuten. Urteak ziren hutsik zegoela Ugarte baserrira. NOAUA!ri egindako adierazpenen arabera, egokitze lanetan aritu dira azken egunetan: "oro har, nahiko gaizki zegoen. Lurra ere leku batzuetan usteldua dago. Oraingo garbitzen joan gara. Erabiliko ditugun gelak txukuntzen aritu gara, bizitzera goazen tokia ondo jarri nahi dugu".

Okupatu dutenetik hona, oso harrera ona egin zaiela adierazi zioten NOAUA!ri: "batez ere gaztetxeko jendea dugu ondoan, eta asko lagundu digute". Denak daude langabezia eta hiru ikasle dira.



Urtarrilaren 25ean, lehen orduan, Ertzaintza bertaratu zen Ugarte baserrian. Albistearen sare sozialetan zabaldu zen berehala. Argazki hau Facebook orrialdetik hartu dugu.

Laburrean

Wifi sarea kentzearen Udal Liburutegian

Usurbilgo Udalak wifi sarea kendu asmo du Suteegi udal liburutegitik. Horren ordez, mahai bakoitzeko konexio finkoko kableak jarri dituzte. Osasunerako kaltegarri suerta daitezkeelakoan, hartu du Udalakerabaki hau. Antzeko pausoak eman asmo dituzte baita, Udalarenak diren gainerako eraikinetan.

Sexualitate ikastaroaren izena emateko aukera

"Nire sexualitatea lantzen" ikastaroaren apuntatzeko epea luzatu dute. Izen emateko deitu 943 371 951 edo 943 377 110 telefono zenbakietara, edo idatzi e-mail bat parekidetasuna@usurbil.net helbidera. Saioak, astelehenean burutuko dira, bake epaitegi atzeko lekuan, 14:30etik 16:30ak bitartean.

Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea

Hileko lehen ostiralean, ITAYA-k kutsaduraren aurkako elkarretaratzea deitzen du. Ohi bezala beraz, ostiral honetan 20:00etan Mikel Laboa plazan elkartuko dira. Aldaketarik ez bada, ke eta usain txarraren harira azken asteotan egon diren nobedadeen berri ematekoak dira. Besteak beste, Udala Ucin-ekin biltzekoa zen urtarrila amaieran.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaUA.com /// www.noaUA.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaUA.com.
Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaUA.com:
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Lurdes
Kamino.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Lehen Herria

Lehen Herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

Igande goizak

A skotan etortzen zaizkit burura txikitako igande goizak. Gosaritarako kafesne beroa eta galleta mariak jan eta gero, amak bainatzen laguntzen zidan. Gaztañako bainera txikia zen, normalaren erdia. Hankak gurutzatuta edo bestela, pareatean gora jarri behar izaten nituen. Ez, ez zen batere komodoa, baina gustora egoten nintzen hantxe, txalupa txiki hartatik mundu zoragarriak irudikatzen.

Gero etortzen ziren komeriak, negu partean, komun txikiko berotasunetik atera behar nuen. Ez zegoen (ez dago) kale-

fakzio zentralik baserrian. Sukaldeko epeltasunera korrika egin behar izaten nuen, bidean katarro bat ez harrapatzeko.

Bainuaren ondotik, nola ez, "Igardetako Erropa" (bai, letra handiz) ateratzen zidan amak, mimo osoz gordea eta prestatua. Amaren ilusioa astean behin behintzat alaba "neskaz" jantzita ikustea zen, eta hantxe uzten zizkidan ohe gainean gonak eta soinekoak, eta ileko mototsetako gantxo eta koloretako zintekin osatzen zuen nire "look" igandetarra.

Behin uniformeak jantzita, hurrengo betekizuna (neretzat

garrantzitsuena), amona Teodoraren aurrera joan eta "Agur Maria" eta "Aita gurea" otoitzak bere aurrean esatea zen. Hortxe hasten nintzen, krixton belozidarian: "Agur Maria, graziaz bete, Jauna dago zurekin, bedeinkatua zara zu,..." Ontzat ematen bazuen errezua, kartera iriki eta bost durokua ematen zidan, eta ni pozez beteta. Marketing ederra egiten zuen amonak, bai horixe!

Gaztañako liturgia guztiak bukatuta, mezetara joaten nintzen lehengusu eta lagunekin. Meza luzea egiten zitzaidala gogoratzen dut, eta oso ondo ere

ez nuela ulertzen hil eta pizteko kontu hura, baina aitortu behar dut kantuak abesten gozatua hartzen nuela (oraindik, noizean behin, eta bakarrik nagoenean, elizako kanta batzuk abesten aritzen naiz). Azkenean, eta eternaleko mezaren ondotik, korrika ateratzen ginen ume guztiak Laurok eta Rich-era, asteko paga ahalik eta litxarkeri gehienetan gastatzera.

Oroitzapen horiek guztiak etortzen zaizkidalako gustatzen zaizkit igande goizak.

Beno, horregatik eta familia eta lagunekin ORAIN jaten ditudan kalamaragatik ere.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | **Idoia Torregarai** | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Erraz eta zentzuz atez ate ingurumena eta osasuna zaintzen

H ondakinak zabor bihur ez daitezen hainbat neurri hartu behar dira. Kutsatzea eta kalteak eragitea ezin du hain erraza izan. Bilketari dagokionez, oinarrikoa da gaikako bilketa eraginkorra egitea. Gauzak ondo egitea zailtzen duten sistemekin ez zaio sekulan arazoari konponbidea emango. Kaleko edukiontziekin hori gertatzen zen gure herrietan eta hori gertatzen da kalean segitzen dute-

netan.

Atez atekoa martxan jartzera doazen herrietara zuzenduta mezu ikaragarriak ikusi eta entzuten ari gara prentsan eta politikari batzuen ahoetatik. Ez zaizkigu arrotzak horrelako gezur zabaltze kanpainak. Gure herrietan ere ezagutu genituen atez atekoa ezarri aurretik. Gutako asko ere ikaratu ginen ba omen zetorkigun kaos eta infernua-rekin.

Guzti honen aurrean, atez atekoaren egunerokoa ezagutzen dugun herritarrok ezin dugu isilik geratu. Gure ekarpena egin behar diogu arazo larri honen konponbideari. Gainerako herrietako biztanleei esan behar diegu atez atekoak hondakinen kudeaketan aldaketa handiak ekartzen dituela bai, baina herritarren egunerokoa, ez duela apenas aldaketarik suposatzen, ez eta ahalegin berezirik eska-

tzen. Atez atekoarekin gure bizitzak naturaltasunez eta normaltasunez segitzen duela adierazi behar dugu.

Horretarako zita, larunbatean izango dugu, otsailaren 2an, Hernaniko "Tilos" enparantzan eguerdiko 12:00etan. Hernanira joateko, Usurbilen 11:15etan jarri dugu hitzordua kale nagusiko autobus geltokian, Zendoia parean.

Usurbil Zero Zabor

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 8. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 4.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-obrak-erreformak

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Hezkuntzako parte hartze prozesuko azken bilera



Otsailaren 6an egingo dute parte hartze prozesuko azken bilera, 18:30ean potxoenean.

Otsailaren 6an amaituko da urrian abiatutako hezkuntzako parte hartze prozesua. Helburua, etorkizuneko Usurbilgo hezkuntza eredia bateratua adostea da. Prozesuko azken bilera, ai-

patu moduan, hilaren 6an burutuko da. Ohiko ordu eta lekuan; 18:30etan hasita, Potxoenean.

Orain arte erabakitakoa martxan jartzeko eman beharreko pausoak zehaztu eta landuko dira bertan.

Udala, herriko emakumeak ageri diren argazki bila

Martxoaren 8aren bueltan ireki asmo duten erakusketa baterako, herriko emakumeak ageri diren argazki zaharren bila dabil Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila. "Azken mendean herriko emakumeen argazkiak erakutsi nahi dira herriari irekiko zaion erakusketa baten bidez", Udaletik berri eman dutenez, eta honenbestez, emakumeak protagonista dituen koloretako nahiz txuri beltzeko erretratuak behar dituzte. "Usurbilgo emakumeak lanean, dantzan, festa giroan, eskolan... ageri direnak", zehaztu dute. Argazkirik utzi nahi duenak, erretratua Udalera helarazteko bi bide ditu; batetik, parekidetasuna@usurbil.net helbidera email bat idatzita. Edo bestela, argazkia udaletxera bertara eramanda. "Guk eskaneatuko genuke argazkia eta bueltan emango genizuke egunean bertan", adierazi dute udaletxetik.

Otsailaren 7an, bidegorri sarea definitzeko lehen bilera

Bidegorri sarea sendotu nahi du Usurbilgo Udalak. "Horretarako ordea, lehenik eta behin bizikletari lekua egin behar zaio herriko kaleetan eta horrek hausnarketa eta plangintza bat eskatzen du", hala dio NOAUA!n jaso dugun prentsa-oharrak.

Usurbilgo Udalak landutako herriko bidegorri sarearen plan zuzentzaitetik abiatuta, "Usurbilgo bizikleta planean sakondu nahi da eta zehazki kaxkoko bidegorri sarea definitu". Horretarako, bilera deitu dute otsailaren 7rako, osteguna, arratsaldeko 19.00etan Potxoenean.

Udal iturriek aditzera eman dutenez, "bilera hauek Usurbilen bizikleta sustatu nahi duen orori zuzenduta daude eta bertan izango da Ibon Goikoetxea, udal ingurumen teknikaria eta Ander Irazusta, Biziker enpresako mugikortasun aholkularia".



Kaxkoko bidea finkatzea da helburua.

Oria, hazita berriz



Oria gainezka zetorren urtarrilaren 25ean.

Astebete ere ez Oriak azken aldiz gainezka egin zuenetik eta udalerrira alderik alde zeharkatzen duen erriara begira ginen berriz, joan den urtarrilaren 24an. Ez gainezka egin zuelako, baina bai azken egunetan bezala hazita zetorrelako beste behin. Bere bidetik

ateratzeko ez zuen askorik falta. Zorionez, ordura arte botatako ekaitza ahultzen, eta giroa baretzen joan izanak halakorik gertatzea saihestu zuen. Azken bi asteotako egun gehienak, haizete edota euri zaparradak tarteko, alerta egoeran pasa ditugu.

“Xiberoko euskararen geroa ikastoletan da”

Nafartarrak taldetik NOAUA!ri berri eman diotenez, 5.120 euroko laguntza bildu zen abenduan, Zuberoako Eperra ikastolaren alde. Gogoan izan, hango hainbat produktuz osaturiko otarrak eskatzeko aukera egon zen. Eta beste behin, usurbildarren elkartasunari esker, bost mila eurotik gora bildu dira. Antolatuzaileek eskerrak eman nahi dituzte. Bide beretik, Iparraldeko ikastolak laguntzen eta udalerrri honen eta Zuberoaren arteko harremanak sendotzen segitzeko asmoa dute Nafartarrak taldekoek. Laguntza beharrean izango direla dio Zuberoatik ere, Jojo Malharin Eperra ikastolako lehendakariak. Lerrootan, elkartasun kanpainari buruz mintzatu da.



5.120 euro batu ziren abenduan Eperra ikastolaren alde. Esker onez, ikasleek argazki hau igorri digute NOAUA! aldizkarira.

Zer balorazio egin dezakezue aurten jaso duzuen laguntzaz?

Jojo Malharin: Aurtengo kanpaina hasi ginelarik prestatzen, ez genuen esperantza handirik. Krisia dela eta, egoera ez zela gure alde argi genuen. Eskerak sartzen hasi eta laster aldiz, ohartu gara ez zela hola izanen. Eta azkenean, egin dugun kanpaina erakargarria izan da aurtengoa. 900 otarre muga gainditu dugulako! Krisi egoeran, elkartasuna sekulan baino garrantzitsuagoa delako???

Zertarako izan zaizue baliagarria, jaso duzuen laguntza?

Dena den, laguntza hau beharrezkoa zaigu. Azken urte hauetan gure Ikastola handitzen ari gara. Lehen fase batean parte berri baten eraikitzea eginarazi genien Xiberoko enpresa batzuei. Fase honen bukaera ospatu genuen joan den udaberrian. Bigarren urratsa da aldiz, ikastolako parte zaharraren eraberritzea. Horretan gara momentuan, fase hau gurasoen gain baita. Larunbatetan biltzen gara beraz, lanak aurreratzeko. Astean behin aritzez, ez da nahi bezala

aurreratzen ahal, baina espero dugu Bazkoz bukatzea.

Zer nolako premiak dituzue?

Ikastola handitzea, orain finantzatua baldin bada, oraingo beharrak dira, alde batetik, gela berri guztien antolatzea: mahaia, arbel eta guzti, eta bestalde ibilmoldea dirustatzea : eremu gehiago izateak esan nahi baitu berotze gehiago, garbiketa gehiago eta abar. Adibidez, Estatuak ordaintzen baditu irakasleen hilabete sariak, beste 4 langile, ikastolaren gain dira. Horri gehitzen badugu material guztia, haurren ateraldiak eta aktibitate bereziak... Eta diru sarrerak ez dira eremua bezain azkar handitzen. Laguntzen erdia haur kopuruaren arabera kalkulatu baita (Herrietako parte hartzea, familien ordainketa zuzenak). Eta beste erdia, laguntzaileen borondate onean oinarritzen baita, (laguntza zuzenak, edo ekintza eta kanpaina berezien bidez).

Zein da zuen ingurunean ikastolek bizi duten egoera?

Gaur egun Xiberoan, haurren %20 ikas-

toletan dabil. Horrek ez du euskararen salbatzea segurtatuko, eta gure hizkuntzak behera jarraitzen du. Gero eta gutxiago entzuten da Xiberotarren artean. Iparralde osoan bezala beharrezkoa iruditzen zaigu ofizialtasuna lortzea. Jakin badakigu horrek ez duela dena konponduko, baina ondo badakigu ofizialtasun eza, zein kaltegarria den.

“Jarraitu beharko dugu zuen laguntza jasotzen”

Datorren urtean ere, ziurrenik elkartasun kanpaina berri bat antolatuko da Usurbilen. Zergatik parte hartu behar lukete herritarrek kanpaina horretan? **Jojo Malharin.** Beti bezala, bihar, atzo baino gehiago elkartasun kanpainak antolatu beharko ditugu. Xiberoko euskararen geroa gure ikastoletan baita, horrek handitzera kondenatzen gaitu. Eta horregatik jarraitu beharko dugu, zuen laguntzarekin, ikusgarriak antolatzen, Xiberoko mozkinen otarreak saltzen, taloak egiten.....eta politikariei gure beharrak aldarrikatzen.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Santa Ageda bezpera, koplez blai

Egoki jantzita eta makila eskuetan, koplak abestera irtengo dira herritar eta ikasleak datorren astelehenean. Otsailaren 4a izango baitugu, Santa Ageda egunaren bezpera.

Bazkalostetik iluntzera bi kalejira antolatu dira Kaxkoan; lehena, Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleekin. 14:45etatik 16:30ak arte luzatuko dena. 14:45ak aldera hain zuzen, Lehen Hezkuntzakoak ikastolatik Kalezar aldera joko dute eta handik frontoira. 16:00etarako pilotalekuan, Haur Hezkuntzako ikasleekin bilduko dira koplak kantatzeko. Ikastolatik berri eman dutenez, tarte horretan, DBHkoak auzoetan abesten arituko dira.

KANTU TALDEA

Ekitaldi hau amaitu eta bi ordura deitu dute bigarren hiztordua, Kantu Taldekoek eta



Zubietarrak 19:00etan hasiko dira kantuan; Eskola Txikitik abiatuko dira.

OTSAILAK 4

Kaxkoan, Mikel Laboa plazan elkartuko dira 18:30ean Bota Punttuba eta Kantu Taldekoak

Bota Punttubak 18:30etarako Mikel Laboa plazan. Bertsolari eta trikitilarien laguntzaz, kantuskean ibiliko dira. Herritarrek parte hartzea deitzen dituzte, "makila eskuetan eta egoki jantzita"

ZUBIETAN ERE BAI

Kaxkoan bakarrik ez, Zubietan ere koplak abestera irtetekoak dira otsailaren 4an astelehena, 18:30ean Kaxkapetik. Gero aforia egingo dute Zubietako elkarteetan. Afarirako izena emateko azken eguna, ostiral hau. Egun handia iritsi baino lehen ordea, Santa Ageda bezperako kantaldia prestatzeko entsegua deitu dute ostiral honetarako, 19:00etan Eskola Txikian. Antolatzailea: Zubietan Lantzen.

Kalejiran ospatuko da aurtengo Inauteri Jaia, inoizko musikatuena

Musika munduko izarrak, instrumentuak, abesti bat... Aurtengorako mozarroa sortu edo prestatzeko inspirazio iturri izan daitezke. Baina buruari bueltak emateko denbora askorik ez da geratzen ordea. Astebete barru, otsailaren 9an ospatuko baita aurtengo Inauteri Festa. Eta gogoan izan, mozarrotzeko gaia musika dugu.

Asteotan aurreratzen joan garen moduan, 2013ko Inauteri Festa egunez ospatzeko apustua egin nahi da. Horregatik, zenbait aldaketa izan ditu egitarauak. Batetik urteroko afa-

riaren orde, aurtengo bazkari baten bueltan ospatuko dira inauteriak. Otordura, mozarrotuta joatea ezinbestekoa izango da. Eta txartela eskutan duzuela noski. Olarrondo jatetxean izango den bazkariara joateko sarrerak 18 eurotan eros daitezke otsailaren 6a baino lehen, NOAUA!n, Irratin edo Txiribogan.

ZUMARTXAN TXARANGA

Inauteri Festako mozarrotzeko gaia musika izango dugu, eta musikak girotuko ditu kaleko bazter guztiak. Aurreko urteetako bi txaranga taldeek ez dute hutsik egingo, ezta aurtengo ere; eguerdian, Zumarte Musi-



Iaz mitologia izan zen mozarrotzeko aukeratu zuten gaia.

ka Eskolako Zumartxan taldekoekin kalejiran dantzan aritzeko aukera izango da. Eta iluntzeko 19:00etatik aurrera, Burrenbasale txarangakoekin. Lehenago, bazkalostean, 17:00etatik aurrera, aurtengo beste nobedadea. Dultzaineroek lagunduta, erraldioen kalejira ospatuko da.

Zirkoa eta zinea bat eginik Udarregi ikastolan

Desfilea Kaxkoan eta ikuskizuna gero, Oiardegi Kiroldegian. Udarregi Ikastolako ikasleek otsailaren 8an ospatuko dute mozarro festa. Txikienek zakuak jantzita, LH-koek zirkoari loturiko mozarroekin eta DBHkoek film desberdinak irudikatuko dituzte euren koreografia ikusgarrien bidez.

10:00ak aldera hasiko da desfilea. Kalejiran irtengo dira ikasleak. Hamaiketarako Oiardegi Kiroldegian bueltan izango dira guztiak. Ohi bezala, emaldia Haur Hezkuntzako ikasleekin hasiko da. Jarraian, Lehen Hezkuntzako txanda izango da. Aurtengoan, mozarrotu eta dantzatzeko zirkoa hautatu dute gai gisa. Eta azkenik, helduen txanda, DBHkoena. Zinea eta filmi loturiko koreografia landu bezain ikusgarriak plazaratuko dituzte.

Inauteri Festa

Otsailak 8, ostirala

10:00 LH-koen desfilea, "Martxa" dantzatzuz.

11:15 Udarregi Ikastolako HH, LH eta DBHko ikasleen ikuskizuna Oiardegi Kiroldegian.

Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Otsailak 9, larunbata

12:30 Zumartxan txarangarekin kalejira.

14:00 Bazkaria Olarrondo jatetxean. Txartelak salgai: 18 eurotan, NOAUA!n, Irratin eta Txiribogan.

17:00 Erraldioen kalejira dultzaineroekin.

19:00 Burrenbasale txarangarekin kalejira.

Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo Gaztetxea, Erraldioen Konpartsa.

Ia 100 langabetu gehiago Usurbilen, urtebetean

Urte beltza izan da 2012a, langabeziari dagokionean. Azken urteotako langabezia tasa altuena erregistratu da Usurbilen. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kaleratu berri dituen datuen arabera, abenduan 374 herritar zeuden lanik gabe. Azaroan baino 12 herritar gehiago.

Baina 2012. urtean langabeziak izan duen eboluzio ezkorren erakusle ditugu 2011ko abenduko datuak. Orduko hartan, 281 herritar zeuden langabezian. 2012ko abenduan 93 herritar gehiago. Guztira 374 langabetu, azken hileotan gertatu bezala, marka berri bat hautsiz. Lau urteren buruan, Usurbilgo langabeziatasa bikoiztu egin da.

Buruntzaldean edota Gipuzkoa mailan ere beste hainbeste, langabetu kopurua bazter guztietan igo da. Herrialde mailan esaterako, 2011ko abenduan 41.130 lagun zeuden lanik gabe, urtebete beranduago 47.688 ziren langabezian. 6.558 langabetu gehiago urtebeteko epean. Halere, langabezia tasa baxena duen herrialdea dugu Gipuzkoa, %12,59koa hain zuzen. Gai-degiaren arabera, Euskal Herri osoan 230.959 langabetu zirela agurtu genuen iazko urtea, %14,8ko langabezia tasarekin (2011 amaieran, tasa %12 zen).



Protesta giroa isildu da azkenaldian, baina langabeziaren kopuruak gora jarraitzen du etengabe.

LANGABETUEN ARTEAN EMAKUMEAK GEHIENGO

Datuokin noski, erregistratutako lan kontratu kopurua jaitsi da. 2011ko abenduan 244 ziren, joan berri zaigun hila-beteetan, 238.

Joan den abenduko datuetara bueltatuta, aurreko hila-beteetako joera errepikatu dela aipatu behar. Batetik, adierazi bezala, tasa orokorraren

igoera. Sexuari dagokionez, 20 emakume langabe gehiago daudela gizonenak baino. Adin tarteari begira, langabe kopuru gehien 25-44 urtean dago. Sektoreka, zerbitzuetan biltzen da lanik gabeko herritar kopuru altuena.

Aldameneko zutabeetan, 2011ko abenduko eta 2012ko abenduko Usurbilgo langabezia datuen alderaketa.

Emakume baseritarren errealitatea aztergai, Udalaren beka deialdi berrian

Beka deialdi berri batean parte hartzeko epea ireki du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. "Usurbilgo emakume baseritarren inguruko historia jaso, landu eta herritarrei transmititzea" da helburua, deialdiko oinarriek jasotzen dutenez. Ikuspuntu desberdinetatik landu beharko da gaia; historia, eko-

nomia, antropologia, soziologia, giza zientziak, filosofia... Deialdi honetan interesa dutenek, otsailaren 26ra arteko epea dute euren proiektua aurkezteko. Epaimahai batek hautatuko du, beka nori eman. Hori buruzko xehetasun gehiago www.usurbil.net orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2012ko abendua, Guztira: 374

Sexuaren eta adinaren arabera
Gizonezkoak: 177.

<25: 19.
25-44: 100.
>=45: 58.

Emakumezkoak: 197.

<25: 14.
25-44: 96.
>=45: 87.

Sektorearen arabera

Nekazaritza: 3.
Industria: 74.
Eraikuntza: 50.
Zerbitzuak: 227.
Aurretik lanik gabe: 20.

Buruntzaldean:

Andoain: 1.107.
Astigarraga: 325.
Hernani: 1.382.
Lasarte-Oria: 1.385.
Urnieta: 401.
Usurbil: 374.
Gipuzkoan: 47.688.

2011ko abendua, guztira: 281

Sexuaren eta adinaren arabera
Gizonezkoak: 135.

<25: 14.
25-44: 67.
>=45: 54.

Emakumezkoak: 146.

<25: 12.
25-44: 73.
>=45: 61.

Sektorearen arabera

Nekazaritza: 4.
Industria: 58.
Eraikuntza: 36.
Zerbitzuak: 169.
Aurretik lanik gabe: 14.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Gure hezkuntza eredu bateratua



prozesuan
%100

**Aukera desberdinak eta alternatibak
landu, eztabaidatu eta eraikitzeko
azken saioa.**

**Otsailaren 6an, asteazkenez,
Potxoenean, arratsaldeko 18:30etik 20:30era**

0-16 hezkuntza
proiektua zehazteko
**usurbildarrok
etorkizunerako
nahi dugun
hezkuntza-eredu
bateratua**



Usurbilgo
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Usurbil



Nahi dugun eskola

Herri lurrak, "etorkizuneko aukera bakarra"

ELIKADURA BURUJABETZA JARDUNALDIETAN, LURREN JABEGO PUBLIKOA SUSTATZEAREN ALDE

Udal baratzak. Herri baratzak. Ugaritzen ari dira antzeko esamoldeak. Prentsan erreparatzea besterik ez dago. Gure artean ere, antzeko ekimen bat hasi da itxura hartzen. Azken asteotan eman dugu horren berri. Gurean, Agerreazpiko lurretan ipiniko dira. Laster beraz, herri izaerako baratzetan ikusiko ditugu hainbat lagun lanean. Gai honekin lotuta dago Usurbiltzenek larunbat honetarako antolatatu duen jardunaldia. Elikadura burujabetza eta finantza etikoari buruzko topaketetan ere, hizlarien ahotan izan zen. Jakoba Errekondok Zeraingo esperientziaren berri eman zuen. Bere esanetan, garbi dago "lurren jabetza publikoa dela etorkizuneko aukera bakarra eta, herri txikienetan, zer esanik ez".

Elikadura burujabetzari buruzko jardunaldietan, Zeraingo esperientziaren berri eman zuen Jakoba Errekondok. Ez dela egitasmo isolatua nabarmendu zuen ezer baino lehen. "Herri proiektu oso baten barranean planteatzen da", adierazi zuen Sutegin egin zuen aurkezpenean. "Gure kultura eta gure izaera gorde" eta



Aurreko asteko jardunaldietan, Terra Libera (Italia), Terre de Liens (Frantzia), Zerain eta Lurzaindiako esperientziak hobeto ezagutzeko aukera izan zen.

JAKOBA ERREKONDO
"Zerainen, une honetan, herriaren %17a da publikoa eta urtero %2a erosten ari gara"

etorkizuneko aukerak emango dituen proiektu gisa definitu zuen. "Garbi dugu lurren jabetza publikoa dela etorkizuneko aukera bakarra eta, herri txikienetan, zer esanik ez". Gordelur du izenburu Zerainen bultzatzen ari diren egitasmoak.

Lurren kudeaketan, instituzio edo administrazio guztiek dute arautzeko joera. Lege eta dekretu anabasa horren aurrean, "herri eta komunitate txi-

kietan ez dago arautzeko aukera handirik", azaldu zuen Jakoba Errekondok. "Arautegi horiei guztiei aurre egiteko, aukera bakarra da herri proiektu indartsuak edukitzea eta horretarako lurren jabetza garrantzitsua da".

GAZTEEI ATEAK IREKI

Gipuzkoan, momentu honetan, lur jabetza publikoa oso urria da. "Diputazioetik kanpo, herriek duten jabetza publikoaren kopurua barregarria da; %1era ez da iristen. Zerainen, une honetan, herriaren %17a da publikoa eta urtero %2a erosten ari gara", jakinarazi zuen Sutegin bertaratu zirenen aurrean. "Gure indar handiena horretan inbertitzen

ari gara", azaldu zuen Errekondok, eta laster "etorkizuneko proiektuak garatzeko aukera handiak izango ditugu. Oraindik ez dakigu oso ondo zer egingo dugun baina atzetik datozen zeraingar gazteei atea irekita uzteko aukera ematen digu lurren jabetza horrek".

PREZIO DUINAK

Aurten adibidez, 20 hektarea erosteko asmoa dute Zerainen. "Eta jendea saltzeko pronto dago", Jakoba Errekondok. 30 urteotako esperientziaren ondoren, "jendea jabetuta dago lur horiek benetan herri proiektura bideratzen ari direla eta ez pertsona baten, alkate baten edo udaletxeko pertsona jakin baten negozioetarako".

Merke antzean ordaintzen ari direla onartu zuen Jakoba Errekondok: "jabetza publiko izateko ez luke kosturik izan behar baina beste aukerarik ez daukagu momentu honetan. 0,30 zentimo ordaintzen ari gara metro koadroko. Prezio duin bat da". Lurren jabetza publikoa funtsezkoa dela berretsi zuen, "etorkizuneko baserriak, artzain berriak eta sagardogile berriak behar ditugulako".

"Baserriak berriak erakarri ahal izateko aukera handiak zabaltzen ari dira"

Hau guztia aurrera ateratzeko, egitura bereziak sortu behar izan dituzte Zerainen. Fundazio bat, lanpostuak sortzeko; eta SA bat, lurren kudeaketarako. Hau guztiari esker, "baserriak berriak, gazteak, erakarri ahal izateko aukera handiak zabaltzen ari dira", herri proiektu baten barranean, beti ere.

Zerainen hiru arlotan ari dira lanean: ondarean, ekonomian eta bizitza-kalitatean, "zainduta-ko paisaia batean bizi ahal izateko". Nekazaritzan zein turismoan, lanpostu duinak eta iraunkorrak sortzearen aldeko apostua egin zuen Jakoba Errekondok. "Iraunkortasuna guretzat da lur batek, toki batek, eskualde batek

ematen duena edo produzitzen duena bertan geratzea. Ez dadila kanpora atera, ez dadila kanpoko jabeen eskuetara joan edo kanpoko enpresetara. Eta hori lurra gurea izanik bakarrik lortzea daukagu", argudiatu zuen Sutegin, Fiare eta Via Campesinaren ekimenez egin ziren jardunaldietan eskaini zuen solasaldian.

Usurbil, elikaduran ere burujabe?

Izenburu hori du Usurbiltzenek larunbat honetarako Sutegin antolatatu duen topaketak. Partehartzailea eta bizi izateko xede irmoz, goizeko 9:30ean hasi eta arratsaldeko 18:00etan amaituko da. Haurrak zaintzeko zerbitzua ere izango da, hala behar izanez gero. Izen-ematea telefonoz (618 868 188) edota emailuz usurbil.elikadura@gmail.com egin daiteke.

Omenaldi beroa jaso zuten euskara ikasleek

Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako ikasle eta euskaltzalez bete zen Usurbil, joan den larunbatean ospatu zen Korrikaren aldeko jaialdian. Ekimenak hain zuzen, martxoan ospatuko den lasterketak bezala, euskara ikasten ari direnak omentzea zuen helburu. Euskara ari dira ikasten eta euren ahalegina egiten ari diren guztiak eskertzeko, omenaldi beroa jaso zuten. Bertaratu zirenen txaloak jaso zituzten, dantzarien agur eta guzti.

Haiekin batera baita bi usurbildarrek ere. Garai batean, herriko baserriak berritzeko diru bilketa bat egin zen herrian. Kopuru hartatik zati bat soberan zuten eta aurtengo Korrika 18 laguntzera bideratzea erabaki dute. Talde honen ize-nean oholta gainera igotako bi usurbildarrek ere bertaraturako jendetzaren txalo zaparradak jaso zituzten. Ekitaldira hurbildutako artean ziren ordezkari politikoak; Usurbilgo alkate Mertxe Aizpurua, Martin Garitano Diputatu Nagusia, Eriz Zapirainen ikus-entzunezko lanean parte hartu zuten zenbait aurpegi ezagun; Karlos Argiñano edota Iñaki Perurena. Eta haiekin, Garbiñe Petriati Behatokiko zuzendaria, Paul



Diru ekarpena egin zioten Korrikari eta bertaraturako txaloak jaso zituzten.

Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia, Joanmari Larrarte BERRIA taldeko kontseilari ordezkaria...

OMENALDI ONENA, ERABILITZEA

Korrikako arduradun Edurne Brouardek, euskara ikasten dabiltzaneren ahalegina zoriondu eta eskertzearekin batera, laguntza eskatu zuen larunbatean ospatu zen omenaldi ekitaldian. Lagun-

tza erakundeei, euskara doan ikasi ahal izateko. Eta bigarrenik mezua jendarteari, euskara erabil dezagun, hori baita gure hizkuntza ikasten ari direnak omentzeko dugun modu onena, jaialdian bertan agerian geratu zen moduan. Korrika 18ren leloarekin bat eginez hain zuzen, euskara elkarriz ematen aritu ziren Usurbila gerturatutako lagunak.

Sarean ere
noaua
 euskararen
 aterpe

Jarraitu gaitzazu
 Facebook-en,
 Twitter-en eta
 www.noaua.com
 helbidean!

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN AMETSAK.

“THROUGH THE LEARNING
JOURNEYS, MU GIVES ME THE
CHANCE TO STUDY WHILE
TRAVELLING AROUND THE
WORLD.”

Mia Bijman, Lidergo Ekintzailea eta
Berrikuntzan 1. mailako ikaslea.



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE · OTSAILAK 2 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

BIDASOA · OTSAILAK 21 osteguna, 18:00

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

ESKORIATZA · OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

ARETXABALETA · OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

**Gastronomia Zientzien
Fakultatea-Basque Culinary Center**

DONOSTIA · OTSAILAK 14 osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Gure Pakea elkarteko bazkideen arteko txapelketak

Gure Pakea elkarteak mahai joko eta mugimenduko txapelketak antolatu ditu hilabete honetarako. Izen emateko epea zabalik dago, otsailaren 8ra arte. Sariak hilaren 20an banatuko dira, askariarekin batera.

Txapelketako joko guztiak arratsaldeko 16:00etatik aurrera ospatuko dira, egunotan:

Otsailak 12 asteartea puntua, txapelketa.

Otsailak 13 asteazkena tutea.

Otsailak 19 asteartea mus.



Iazko txapelketetan sarituak izan ziren lagunak.

Otsailak 20, asteazkena toka eta igel jokoak. Sari banaketa eta askaria partaideentzat. Antolatzailea: Gure Pakea.

Dantza ikastaroa eta antzezlan, asteburuan Usurbilgo Gaztetxean

Ekitaldi bana antolatu dute Usurbilgo Gaztetxean, larunbat eta igande honetarako. Afrikar dantzak hasteko, eta asteburua borobiltzeko, "Ispilua" antzezlan.

AFRIKAR DANTZAK

Facebook bidez iragarri duteenez, afrikar dantza mandingeen ikastaroa antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak, larunbatetarako, otsailaren 2rako. Bi orduko saioa, goizeko 11:00etan hasiko da. Ikastaroan parte hartu nahi

dutenek aldeztatik izena eman beharko dute, 627 285 904 deituz edo emailera idatziz usurbilgogaztetxea@gmail.com

"Ikastarora zatoztenok, ekarri mesedez aldatzeko arropa, izerdia erruz botako dugu eta", ohartarazi dute antolatzaileek. Ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da. Oihana Varelak gidatuko du ikastaroa.

"ISPILUA" ANTZEZLANA

Igande honetarako antzerkia ere antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak: "Ispilua" antzezlan,



"Ispilua" antzerkiko antzezleak.

iluntzeko 19:00etatik aurrera. Ion Martinez eta Saioa Royo dira emandiko protagonistak. Bikote baten arteko erlazioari buruzko gorabeherak azalduko dituzte. Maitasunari buruzko gogoeta bat da.

Pilota partidak

Otsailak 3 igandea
Aginagan, goizez 11:00

Euskal Herriko Txapelketa
Eskuz banaka nagusiak
USURBIL
(Xabier Santxo)
LEA ARTIBAI

Udaberri Txapelketa
Eskuz binaka nagusiak
2. maila
USURBIL
(J. Bengoetxea-M.Galarraga)
GAILURRERANTZ

Paleta Goma nagusiak 2. maila
USURBIL 2
(X. Murua-I. Esnaola)
PIÑA KURDIN

Eskubaloiko errifa zozketa

Iñaki Mujikari Urdaira sagardotegian bi lagunentzako otordua egokitu zaio, Usurbil Kirol Elkartek antolatzen duen errifa zozketan. 5.351 zenbakia izan da saritua kasu honetan. Eskubaloiko taldeen bilgunetik errifak erosten dituzten herri-tarrak edota ekimen honetan parte hartzen duten sagardotegi eta jatetxeak eskertu nahi dituzte.



5.351 zenbakiarekin lortu zuen saria Iñaki Mujikak.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

BENTĀ TABERNĀ

HANBURGESAK

Oilasko erreak
Ogitartekoak

943 36 93 05

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Hotza baino, lokatz ugari

GIRO ONA NAGUSI, IRISASI BTT TALDEAK ANTOLATU ZUEN BIZIKLETA ZEHARKALDIAN



Andatza Mendi Taldearen web orrian, www.andatzamendizale.info helbidean aurkituko dituzue argazki hauek eta askoz gehiago ere. Argazkien egileak: Nerea Korta, Unai Aizpurua eta Felix Aizpurua.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jubenilen eskubaloi taldea, Gipuzkoan lehena

Denboraldi hasiera ezin hobea izan du jubenil mutilen eskubaloi taldeak. Gipuzkoako txapelkun ditugu denboraldi honetan. Garaipen honek, igoera fasera jokatzera eraman ditu berriki Barakaldora. Ez dute mailaz igotzea lortu, baina orain arte bezala ilusioa eta lana uztartzen jarraitu nahi dute maiatzera bitartean. Aurrera begira jarria da jada, Jon Begiristainek eta Sergio Montesek zuzentzen duten hamabiko taldea.

Igoera fasea jokatzera iritsi zarete, denboraldi zati on baten seinale ezta?

Lehenengo urtea da jubenil mutilak entrenatzen ditugula. Ez genekien nola aterako zen, baina gustura gabilta, talde polita dugu. Garrantzitsuena, oso giro ona dago. Partidaz partida joan gara. Bat edo beste zaila izan dugu. Bagenekien goian zeudenekin borrokatu beharko genuela. Bestela behekoekin, erraz aritu gara.

Emaitza on hauen atzean zer dagoela esango zenukete?

Beti ere irabazten joateak asko laguntzen du, dudarik gabe. Horrekin ere ilusio bat sortzen da, beraiek ikusten zuten irabazten ari zirela. Ez dago inolako arazorik, ikasketak dituztenean ikasketei ematen zaie lehentasuna, eta entrenamendua dagoenean entrenamenduei. Beraiekin hitz egiten dugu, ondo eramaten gara. Beraiek saiatzen dira, gu ere bai. Beraiek entrenamenduetan jarri behar dutena jartzen dute, guk ahalik eta ilusio gehiena. Ondo atera da, eta orain aurrera jarraitu behar.

Noiz erabaki zen igoera fasea?



Jon Begiristain eta Sergio Montes dira entrenatzaileak.

ERRONKAK

“Udaberriko torneoa jokatu dugu eta ondoren Kopa”

Hasieratik genekien. Ligan aurrera geldituz gero igoera fasea sartuko ginela. Hiru taldeei aukera ematen diete ia nahi duten etxean fase hau antolatu. Guk etxean jokatzeko eskatu genuen, Barakaldokoek ere bai eta Corazonistas taldekoek ere beste hainbeste. Zozketa egin zen, Barakaldokoei egokitu zitzaizkien. Liga bukatu eta hurrengo astelehenean jakin genuen Barakaldora joan behar genuela igoera fasea jolastera. Beti ere etxean nahiago izaten da, baina han tokatu zen.

Zer moduzko esperientzia izan da taldearentzat?

Beti ere ilusio batekin joaten zara, eta mailaz igotzeko esperantza guztiak galtzen direla ikustea gogorra da. Bestela taldeari ondo etorri zaio ikusteko hemen inork ez duela ezer oparitzen. Ligan erraz aritu dira. Ondo etorri zaie ikusteko dena ematen ez bada, hemen ez duela inork ezer oparitzen.

Eta orain zer erronka dituzue denboraldiko bigarren zatirari begira?

Udaberriko torneoa jokatu dugu eta gero Kopa. Baina Kopa ez dakigu oraindik nola jokatu dugu. Igoera faseak min pixka eman digunez, min hori kentzeko berriz ere ahalik eta ondoen egitera goaz gauzak. Erronka edo ilusio batekin, motibazioarekin lehiatu nahi dugu, ez jolasteagatik jolastera joan. Gainera hurrengo urteari begira gaude. Jokalariak gehiago landu eta geroari gehiago begiratu nahi diogu.

Asmoa noski jokalariak mantentzea da, klub barruan aurrera jarraitu dezaten.

Bigarren mailako jokalariak ditugu gehienbat eta hori da politena, ahalik eta jokalari gehien iristea gora. Baina orain tartean ikasketak daude, ia kanpoan edo bertan ikasiko duten. Ilusioa beti da entrenatzaile batenentzat norberak entrenatu duen talde bat ikustea aurrera jarraitzen duela eta ilusio horrekin. Eta ikustea lanak ez ditugula hain gaizki egin.

Zer esan jokalariei?

Orain arte bezala jarraitzeko. Orain arteko lanarekin aurrera segitzeko. Denboraldia ez dela bukatu eta oraindik egongo dira gauza onak. Eta aurrera segitzeko, normaltasun osoz orain arte bezala.

Urrezko eta brontzezko domina Judo Klubarentzat

Urtarrilaren 13an Burgosen jokatutako kadeteen mailako Espainiako Kopa. Usurbilgo taldeko lau judoka izan ziren bertan. Haietatik bi, domina bana eskutan zutela itzuli dira. Klubeko blogetik berri eman dutenez. 73 kiloz azpikoen mailan, Xabier Cazorlak urrezko domina eskuratu zuen. 44 kiloz azpikoen mailan berriz, brontzezkoa Paula Vicentek. Txapelketan, Naroa Sanchezek (-48 kg) eta Nestor Lacak (-60 kg) ere parte hartu zuten.

Itoitz Rodriguez, Gipuzkoako Txapelkun

200 eta 400 metroko lasterketan, bi urrezko domina irabazi zituen Gipuzkoako Txapelketan. 23,17 eta 51,41 segunduko denborak egin zituen, hurrenez hurren.

Eneko Iribar, selekzioa

Gipuzkoako eskubaloi selekzioan jokatzeko deitua izan da berriz Eneko Iribar usurbildarra. Igande goiz honetan, otsailaren 3an, goizeko 10:00-11:45 artean La Salle Kiroldegian entrenatuko du infantil mailako jokalariak, Usurbil Kirol Elkarteak berri eman duenez.

Andatza Mendi Taldearen batzarra

Bilgunearen egoeraren berri eman eta egitasmo berriak aurkezteko bilera deitu du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak, ostegun honetarako, urtarrilaren 31rako. Hitzordua, iluntzeko 19:00etarako finkatu dute Artzabalen.

Bestetik, Deba-Zumaia bidea osatuko dute otsailaren 10ean. 8:00etako trenean abiatuko dira.

Futbol partidak Otsailak 2 larunbata

10:00 Infantil neskek F-8.
11:15 Infantil mutilak F-8.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,
garajeak**

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalaneko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-

tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldean, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo inter-

**Zorionak Nora!**

Igandean zure 5 urteak ospatuko ditugu. Muxu potoloak familiaren partez.



Badira 5 eta 7 urte **Nora eta Maia** etorri zirela gure bizitzara. Hau poza! Mila esker zuen alaitasunagatik. Maite zaituztegu.

Heriotzak

Francisco Beristain Intxausti
55 urterekin hil zen urtarilaren 23an, Usurbilen



Azkenekoa!! Azken urtebetetzea giltzapean! Datorren urtekoa elkarrekin ospatuko diagu, baina hori baino lehenago hire etxeratzea, bale? Zorionak Jokin!

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

na moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espereintzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldetan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan hau-

rrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

BESTELAKOAK

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Txamorra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigo eta jeisteko eskailera ondoan. 660779160

Su egurra salgai. Haitza eta pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiuak, lanpara, alfonbrak, sehaskak, maletak, bizikletak... Ataluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	LurraldeBus	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
KZgunea	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Popular Español	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	BBVA	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Telefonica	1004
Abere-Landare Babeslea	943 376 650	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urtarrilak 31-otsailak 10

Osteguna 31	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte
Ostirala 01	GIL	Kale Nagusia 24 behe Lasarte
Larunbata 02	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Igandea 03	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Astelehena 04	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Astearte 05	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteazkena 06	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte

Osteguna 07	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Ostirala 08	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 09	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Igandea 10	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Agenda otsaila

1 ostirala

- **Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea**
Mikel Laboa plazan, 20:00etan.
Deitzailea: ITAYA.

2 larunbata

- **Afrikar dantza ikastaroa** Usurbilgo gaztetxean 11:00etan hasita.
- **Usurbil, elikaduran ere burujabe?** jardunaldiak Sutegin, Usurbiltzenek antolatuta. 9:30-18:00etara.

3 igandea

- **III. Tipi Tapa Pintxo ibilbidea.** 300 euroko erosketa-balearen zozketa: Artzabalen, 15:00etan.
- **"Ispilua" antzezlana,** 19:00etan Usurbilgo Gaztetxean.

Tipi-Tapa pintxo ibilbidea osatzeko aukera berri bat

Igande goizean, Txapeldun, Artzabal, Bordatxo, Aitzaga edo Txiribogan "Tipi-Tapa" ekimeneko pintxo berezia dastatzen duenak txartel bat jasoko du. Bost tabernetan, pintxo berezia eta edaria hartzen duenak, 300 euroko erosketa-balearen zozketan parte hartu ahal izango du. Honakoan, ezkur-urdaiazpiko pintxo bereziak izango dira eskainiko direnak.

2 euroren truke, ezkur-urdaiazpikoz egindako pintxo bereziarekin batera urteko ardoa (zuria, gorria edo beltza), txakolina, sagardoa, zurittoa, muztioa edo ura izango dira eskuragarri, eta ezkur-urdaiazpikoz egindako pintxoak bakarrik nahi duenak 1,5 eurotan eskuratu ahal izango du.



Urdaiazpiko pintxoak izango da igande honetako Tipi-Tapa ibilbideko "izarra".

Otsailak 3, igandea

- Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Txapeldun eta Txiriboga tabernetan.
- 300 euroko erosketa-balearen zozketa: Artzabalen, 15:00etan.

"Oso latza izan da" liburuaz solasaldia

Euskal Memoria Fundazioak atera berri duen liburua aurkeztuko da Sutegin: urtarilaren 31 ostegunarekin, 19:30ean hasita. Nuria Alzugarai egingo ditu aurkezle lanak. Aitzagak eta Usurbilgo Udalak antolatute hitzaldia.

"Flor del desierto" filma Sutegin

Emakumezkoen genitalen mutilazioaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira, film proiektzioa antolatu du ITAYA Gazte Asanbladak otsailaren 6rako, 18:30ean Sutegin. "Flor del desierto" ikusteko aukera egongo da.

Datozenak

Datorren astean, Inauteri festa

Otsailaren 9an larunbata, Zumartxan txaranga eguerdiko 12:30ean hasiko da kaleak girotzen. Aurten, afaria beharrez bazakaria egingo da Olarrondon. Bertara joan nahi duenak mozturrotuta joan beharko du eta aurrez txartela erosi Txiribogan, Irratin edo NoAUA!ko egoitzan (18 eurotan salgai).

"Kalekumeak", Ion Markelen argazki erakusketa

"Kaleak milaka istorio kontatzen dizkigu eguneroko. iPhonearen bat-batekotasunaz baliatuz, horietako batzuk lapurtu dizkio argazkilariek". Hala dio *Kalekumeak* argazki erakusketa iragartzen duen txartelak. Ion Markel Usurbilen bizi den argazkilaria erakusketa honetan zuri-beltzeko 35 argazki jasoko dira. Donostiako Okendo Kultur Etxean, otsailaren 8tik martxoaren 22ra bitartean. Asteleheneetik ostiralera egongo da ikusgai 10:00-14:00 / 16:00-20:30.



Okendoko kultur etxean izango da ikusgai.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



· 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

· Jantoki zerbitzua.

· Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

· Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

· Eskola orduz kanpoko kirola.

· Goizeko gela.



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara

Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Izena emateko epea: URTARRILAREN 28TIK
OTSAILA 8 ARTE

9:30etik-16:30tara

UDARREGI IKASTOLA



Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarrerren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.

45 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com